

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Zerga-ordenantzen aldaketaren hasierako onestea

Udalbatzak, 2017ko urriaren 18an egindako bilkuran, 2018rako prezio publikoei buruzko zerga-ordenantzak hasierako onestea erabaki zuen:

- Zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza.
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza.

Udal ogasuna arautzen duen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan ezarritakoa betez, jakinarazten dugu hasierako onetsitako zerga-ordenantza udal bulegoetan duzuela ikusgai; horrela, interesdunek espedientea azter dezaten eta hogeita hamar eguneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, egokitzeak jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten. Agerian uzten da, erabaki honen aurka erreklamaziorik aurkeztu ez bada, jendaurreko epea igaro ondoren, behin betikotzat hartuko dela.

Ondategin, 2017ko urriaren 20an

Alkatea

MIKEL LAS HERAS MARTÍNEZ DE LAPERA